

Editorial

Editoriala



Ignacio Díez López

Querido lector y compañero de la Sociedad Vasco-Navarra de Pediatría:

Con la publicación de este número doble del Boletín correspondiente al año 2012, dejamos atrás curso más. Este 2012 no solo lo recordaremos como el de la consolidación de una crisis económica que se está alargado ya demasiado; sino por otras cosas negativas como la jubilación de la actividad profesional de varios de nuestros compañeros, por la imposición de medidas de ajuste presupuestario o, siendo peor, el fallecimiento de otros. Quiero destacar, dentro del grupo de los primeros, la figura de nuestra Presidenta de Honor la Dra. M. Oyarzabal del Complejo Hospitalario de Navarra; la cual, aunque forzada a dejar su despacho profesional, seguro seguiremos disfrutando de su presencia y sabiduría en diferentes encuentros científicos.. Fue personaje clave, tanto en los comienzos de nuestra Sociedad, como en los momentos más duros de su existencia (bienio 2004-6); donde gracias a su carisma y trabajo como Presidenta de la SVNP, supo manejar la situación de la forma más eficaz posible y mantener la unidad y esencia de la misma. Por otro lado, también me gustaría recordar al Dr. X. Egüés, miembro de la Junta Directiva, fundador de la Neonatología moderna tal y como existe hoy en día en Navarra y artífice y con servador de la página web de nuestra Sociedad. Recordar que nuestra página web fue una de las pioneras en su campo, gracias a la labor de este compañero, y que hoy se encuentra en pleno proceso de modernización, a la cual veremos renacer en los próximos meses. Por último quiero también englobar en este homenaje al Dr. Bento, el cual también participo activamente a lo largo de varios años de la Junta Directiva de la SVNP y fue pieza clave en el desarrollo regional y nacional de la especialidad de la Cirugía Pediátrica.

Euskal Herriko Pediatria Elkarteko irakurle eta kide estimatua:

2012. urteko Buletinaren zenbaki bikoitz hau argitaratuz, beste ekitaldi bat utzi dugu atzean. 2012a oroitzean, gehiegi luzatzen ari den krisi ekonomikoa finkatu deneko urteaz gain, beste kontu negatibo batzuk ere izango ditugu gogoan, hala nola gure kideetako batzuek erretiroa hartu behar izan dutela jarduera profesionaletik, aurrekontuen doikuntza-neurriak inposatu izana edota, are txarragoa, beste kide batzuk zendu egin zaizkigula. Lehenengoan artean, gure Ohorezko Presidentea, Nafarroako Ospitale-konplexuko M. Oyarzabal doktorea, nabarmendu nahi dut. Bulego profesionala uztera behartuta egon den arren, ziur nago gure zientzia-topaguneetan haren presentzia eta jakituria lagun izaten jarraituko dugula. Funtsezko pertsonaia izan zen gure Elkartearen sorreran eta garairik txarrenetan (2004-06 biurtekoa). Beraren karismari eta EHPEko lehendakari gisa egindako lanari esker, egoera ahalik eta hobekien kudeatzen eta elkartearen batasunari eta izaerari eusten jakin zuen. Bestalde, X. Egüés doktorea, Zuzendaritza Batzordeko kidea, gaur egun Nafarroan nagusi den Neonatologia modernoaren sortzailea eta gure Elkartearen webgunearen egile eta zaintzailea, oroitu nahi dut. Kide horren ahaleginari esker, gure webgunea alorreko aitzindarietako bat izan zen, eta gaur egun modernizazio-prozesu betean dago. Hain zuzen, horren harira, datozen hileetan bultzada berria eskuratuta ikusiko dugula jakinarazi nahi dizuet. Azkenik, omenaldi honen barruan sartu nahi dut Benito doktorea, urteetan EHPEko Zuzendaritza Batzordean partaidetza aktiboa izan zuena, eta Kirurgia Pediatrikoko espezialitatea eskualdean eta nazioan garatzeko funtsezkoa izan dena.

Lerro hauetan achantzi ditudan kideekiko errespetu eta maitasun osoz, besarkada beroa eskaini nahi diet profesional horiei, bizi-etapa berriari aurre egin behar dioten honetan.

Baina dena ez da negatiboa izan. Aurten,

Desde aquí quiero, con todo respeto y cariño para los compañeros que olvido en estas líneas, mandar un caluroso abrazo a estos profesionales en su nueva etapa vital.

Pero no todo ha sido negativo. Este año la "FUNDACIÓN SOCIEDAD VASCO-NAVARRA DE PEDIATRÍA/EUSKAL HERRIKO PEDIATRI ELKARTEA FUNDAZIOA" ha visto incrementado su patrimonio, a pesar de la coyuntura económica, gracias a la labor de los miembros del Patronato y del resto de socios. Os aliento a seguir haciendo y colaborando en este sentido.

Este refuerzo económico permite mantener en parte la actividad científica de nuestra Sociedad, pilar fundamental de la misma; y seguir apostando por la actual línea de la Junta de redundar estos beneficios económicos entre sus Socios, a base de becas, ayudas y reuniones científicas sin coste económico o inscripción alguna. Esto último es un hecho excepcional dentro de la Sociedades regionales de Pediatría.

Por este motivo y gracias al incremento de esta actividad, este número vuelve a tener un importante número de originales y artículos.

El número 113 del Boletín recoge un artículo especial del Dr. Borderas, dentro la serie iniciada el año pasado, denominada "nostalgias", en este caso de la insigne familia de pediatras Debré. Asimismo recoge 3 originales, uno de ellos en euskara; así como una revisión temática surgida tras la pasada reunión científica del pasado año en Bilbao.

También se recoge en este número, plasmando en papel, para que se encuentre a disposición de todos, las glosas de nuestros Socios de Honor – METOPAS de los últimos 5 años. Este reconocimiento es fruto de la excelencia en la trayectoria profesional de algunos de nuestros compañeros, dando lugar por ello al reconocimiento público dentro la Sociedad Vasco Navarra de Pediatría y en cada uno de los Congresos Nacionales de la AEP, con motivo de la Asamblea General de Socios.

Por otro lado este número 113 recoge la actividad propiamente generada en los diferentes encuentros científicos apoyados desde la SVNP o de iniciativas auspiciadas por la misma.

De este modo aparece la lectura la Beca Elola 2011, la cual fue doble ese año; las comunicaciones libres presentadas en el II Memorial de Vitoria de Abril de 2012 y la reunión científica de Noviembre en la ciudad de Pamplona; las comunicaciones presentadas en la VI. PEDIATRIA TOPAKETAK de Bilbao y un resumen de la XXIX Jornada de Pediatría de Atención Primaria en Guipúzcoa.

Finalizo, animándote a seguir participando de todas y cada una de las actividades científicas de nuestra SVNP, entre ellas la elaboración de este Boletín.

Ignacio Díez López
Director del Boletín SVNP

Patronatuko kideen eta gainerako bazkideen lanari esker eta abagune ekonomikoaren gainera, "EUSKAL HERRIKO PEDIATRI ELKARTEA FUNDAZIOAK" ondarea areagotu egin ahal izan du. Zentzu horretan jarduten eta laguntzen jarraitzera animatzen zaituztet.

Indartze ekonomiko horri esker, gure Elkartearen zientzia-jardueraren zati bati eutsi ahal izango diogu, horixe delako elkartearen funtsezko zutabea. Gainera, beken, laguntzen eta izena eman beharrik ez duten doako zientzia-topaguneen bidez, etekinak bazkideei helarazten jarraitu nahi dugu, orain arte Batzordeak erabakitakoaren ildoan. Jardunbide horrek ez du parekorik gainerako Pediatriako Eskualde Elkartetean.

Beraz, aipatutako jarduera hazi izanari esker, buletinaren zerbaki honek original eta artikulua ugari bildu ditu, berriro ere.

Buletinaren 113. zerbakiak Borderas doktorearen artikulua berezia jaso du, iaz "Nostalgia" izenburupean abian jarri zen seriearen baitan, oraingo honetan Debre pediatria-familiaren kasua aztertzeke. Jatorrizko hiru lan ere bildu ditu, horietako bat euskaraz, bai eta iaz Bilbon izandako zientzia-bilkuraren ondorioz sortutako gaikako berrikusketa ere.

Zerbaki honetan, gainera, paperean, gu guztion eskura egoteko moduan, gure Ohorezko Bazkideen, azken 5 urteotan METOPA izan ditugun glosak ere jaso ditugu. Aitorpen hori gure kide batzuen ibilbide profesional bikainaren emaitza da; hain zuzen, kide horien aitorpen publikoa egin nahi dugu Euskal Herriko Pediatri Elkartearen barruan, eta Espainiako Pediatria Elkartearen (AEP) Biltzar Nagusi bakoitzean, Bazkideen Biltzar Nagusiaren harira.

Beste alde batetik, EHPEK bultzatu edo lagundutako zientzia-topaguneetan sortutako jarduerak ere jaso ditu 113. zerbaki honek.

Adibidez, 2011ko Elola Bekaren irakurketa, urte horretan bikoitza izan dena; 2012ko apirilean Gasteizen izandako II. Memorialean eta azaroan Iruñean izandako zientzia-topagunean aurkezturiko komunikazio libreak; Bilboko VI. PEDIATRIA TOPAKETETAN aurkezturiko txostenak; eta Gipuzkoako Lehen Mailako Laguntzako Pediatriako XXIX. Jardunaldien laburpena.

Amaitzeko, EHPEren zientzia-jardunaldi guztietan –eta, besteak beste, Buletin honen prestaketan– parte hartzera bultzatu nahi zaituztet zuek guztiok.

Ignacio Díez López
Buletinaren zuzendaria